

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

74 positibo berri  
3.352 positibo guztira\*

1.629 hildako EAEn  
6 UCIn EAEn

### NAFARROAN

110 positibo berri  
7.218 positibo guztira

529 hildako  
6 UCIn

\*Hernanin 80 Astigarragan 25

## Urriza eta Barrenetxearen arteko lehia estua espero da aurtengo Kutxabank Torneoan

Atzo aurkeztu zen Galarretan eta gaur hasiko da lehenengo faseko finalarekin.

### HERNANI ERREMONTA

Buruz Buruko Kutxabank 2020 Torneo atzo aurkeztu zuten Galarretan zazpi erremontistekin. Gaur B taldeko finala jokatu dute Juanenea eta Larrañagak eta irabazlea txapelketako hurrengo fasera sartuko litzateke. Orduan sartuko dira jokoan Ansa II, Goikoetxea V, Endika, Urriza eta Barrenetxea IV.

Txapelaren defentsa egingo du Endika Barrenetxeak. Pasa den urtean estreinekoz irabazi zuen erremontean dagoen txapelik garrantzitsuena eta aurtengoa bere helburua balentria hori errepikatzea da. Irstea mantentzea baino zailagoa dela esaten da, beraz helburua oraindik eta zailagoa du aurretik atzelari hernaniarrak.

Horren arrazoia aurkari gogorrak dituela aurrean da eta noski Urriza txapeldun haundiak 'tronua' errekupeatzeko helburuarekin irtenge da. Hori bai, aurretik txapelketa interesgarri batek jartzen dituen zailtasunak izango dituzte bai batek eta bai besteak.

**Finalaurdenetako fasean bakarria sailkatuko da eta abuztuaren 20an amaituko da** B mailako garailea erabakiko da gaur lehendabizi. Juanenea eta Larrañagaren artean partidua estua espero da, biak oso ongi eta maila ezin hobean ari direlako jokatzeko. Saria potoloa da, fasez pasatzea eta bi partidua gehiago txapelketan ziurtatzea.

Finalaurdenetako fase hori gaurko garaileak, Ansa II.ak eta Goikoetxea V.ak jokatu dute. Hiruen arteko ligaxka izango



Galarretan aurkeztu zen txapelketa erremontista partehartzaila guztiek.

da eta abuztuaren 13an, ostegunean, hasiko da. Beste bi jardunaldiak abuztuaren 15ean eta 20an jokatu dira. Puntuazio onena ateratzen duen erremontista hurrengo fasera egingo du salto eta beste biak kanporatuak geratu dira.

**Finalerdietako faseko aurreneko finalera zuzenean** Hurrengo fase hori finalurretako fasea izango da eta lau pelotarik jokatu dute: finalaurdenetako irabazleak, Endikak, Urrizak eta Barrenetxeak. Lehen postuan geratzen den pelotaria, zuzenean finala jokatzeko sailkatuko da.

Bigarren eta hirugarren postuetan geratzen direnak, finalerdietarako sailkatuko dira. Eta laugarren geratzen den pelotaria txapelketatik kanpo ge-

ratuko da aurrera ezin joanez. Bi bikoteen arteko puntu berdinketa badago, bi bikote horien arteko partidua irabazi duen bikoteak lortuko du sailkatzea. Hiru bikoteak berdintzen badute ordea tanteo globala hartuko da kontutan.

**Finalerdia eta finalak, irailaren 19an eta 26an** Abuztuaren 22, 27, 29 eta irailaren 3, 5 eta 12an jokatu dira fase honetako sei partidua. Azpimarragarria da aurtengo txapelketa luzatu egingo dela eta beste urtetan finala jokatzeko den fextetan aurtengo ligaxka amaitzen egongo dela.

Finaleko bidean aurreneko sailkatua zuzenean sartuko da eta irailaren 26an jokatu da finala. Finalerdia, ligaxkako bigarren eta hirugarren sailkatu-

en artean irailaren 19an jokatu da.

### Barrenetxeak bigarren txapela lortu nahi du

Aurreko urteetako aurkezpenetan Urriza izaten zen protagonista eta faborito argia. Aurtengo berriz gauzak aldatu dira eta bi faborito daude txapela irabazteko; Urriza eta Barrenetxea IV. Atzelari hernaniarrak gainera Masterra ere irabazi zuen 2020 urte hasieran eta Urrizaren pare dagoela erakutsi zuen.

Hala ere, ez da ahaztu behar Javier Urrizak sei txapela dituela irabaziak eta azken urteetako txapeldun haundiena izan dela. Bere maila mantentzen du eta azkenaldian jokoarekin dabil.

Endika ere kontuan hartzeko erremontista da eta zailtasunetan jarri izan du Urriza eta

Barrenetxea behin baino gehiagotan gaititu ere bai. Atzoko Galarretako aurkezpenetan erremontista denak ilusioarekin eta gogotsu azaldu ziren.

Partidu guztiak osteguna eta larunbatean jokatu dira eta puntuaketa ere azken urteetan bezala eramango da ligaxketan. Irabazleak lau puntu eskuratu ditu, 27 eta 29 tanto bitartean geratzen denak bi puntu batuko ditu. 24-26 tanto artean puntu bakarria batuko da, 17-23 puntu artean eginez gero ez da puntu batuko eta 17tik behera puntu bat kenduko da sailkapenean.

Buruz burukoaren 38garren edizioa da aurtengoa eta 1986 urtetik urtero jokatu da. Lehenengo txapelduna Abrego izan zen 1944 urtean eta txapela gehien eskuratu dituenak, Koteto Ezkurra, hamaika txapelekin. **K**

**XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTA TXAPELKETA**  
**KUTXABANK SARI NAGUSIA** Abuztuaren 8a

**HERNANIARRAK 5 €**

1. PARTIDA / 16:00-etan  
MIRUBIA ZUBIRI vs SEGUROLA AIZPURI III

2. PARTIDA / FINALA / 17:00-etan  
JUANENEA vs LARRAÑAGA

3. PARTIDA / 18:00-etan  
GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV vs ANSA II ENDIKA

Pelotadenda.com | kutxabank | PAPELERA GIPUZKOANA DE ZICUÑAGA, S.A.U. | sukia | Orona Fundazioa | ORIA MENDI

**GAUR** Tenperaturak behera egingo du. Goizean giroa eguzkitsua izango da, baina arratsalde-gau partean bero-hodeiak ugartu egingo dira eta trumoi-ekaitzak izan daitezke. **Min.19° / Max.27°**

**BIHAR** Hodei gehiago agertuko dira, bero-hodeiak gehienbat. Halere, eguzkitsua egongo da tarteka eta trumoi-ekaitza izateko probabilitatea aurreko egunetan baino txikiagoa izango da. **Min.19° / Max.28°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Dobera Euskara Elkartea**

**GOIZUETAKO UDALA**

**ARANOKO UDALA**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**ERIKO JARDUERAK**

**GOIZUETAKO FORU ALDARTEA**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

**ERIKO JARDUERAK**



Baserriko teilatua guztiz erori zen eta gainontzeko estruktura kiskalita gelditu zen. Argazkia: Foruzaingoa.

## 57 urteko gizon bat atxilotu dute Goizuetan, baserria errretzeagatik

Etxea ez ezik, bere furgoneta ere erre zuen. Goizuetarra bera izan zen autoritateei abisua eman ziena, eta atxilotu egin zuten.



Furgoneta kiskalita gelditu zen. Argazkia: Foruzaingoa

**GOIZUETA GERTAKARIA**

Goizuetako 57 urteko gizon bat atxilotu zuten atzo Foruzainek, kalte-delitu baten ustezko egilea delakoan. Goizuetarrak baserria erre zuen lehenengo eta gero, furgonetari su eman zion. Zenbait testiguren esanetan, gizona herrian oihuka aritu zen, ikurriña eskuetan zuela. Gero, «herriko elizara ere sartu zen, ozenki amen behin eta berriro esanez».

Beranduago, alkilerrean bizi zen baserriari su eman zion eta ondoren, bere furgoneta ere erre zuen. Guztiz kiskalita gelditu ziren etxea eta autoa. Baserriko jabeak denuntzia jarri du, ustezko errudunaren aurka.

**Gizonak eman zuen abisua** Foruzaingoaren esanetan, goi-

zuetarra bera izan zen 112 telefono zenbakira deitu zuena. Baserria eta furgoneta erreko zituela esan zuen. Abisua eman eta Foruzainek Goizuetara bertaratu eta atxilotu egin zuten. Hauen esanetan, gizona nabarmen «asaldatuta eta urduri» topatu zuten. Iruñeako epaitegi batera bidali ziren diligentiak. **K**

## Apalatxe taldea Astarben izango da

Kontzertua egingo dute sagardotegian gaur, 22:30etan. Bihar ere, ipuin-kontaketa izango da. Sarrerak Udaletxeko webgunean eskura daitezke.

**ASTIGARRAGA KONTZERTUA**

Udako plangintza berezia antolatu du Astigarragako Udalak Astarbe sagardotegiarekin batera. Gaur Apalatxe taldea izan-

go da kontzertuan eta bihar, berriz, heldu zein umeentzako ipuin musikatuak izango dira: *Amelie eta Xirrikitu*en jostunak. Biharkoa 15:30etan hasiko da. Sarrerak Udaleko webgunean

adierazitako esteka batean eskuratu daitezke. Antolatzaileek adierazi dute eguraldi ona izanez gero terrazan izango direla ektialdiak. Bestela, sagardotegi barruan egingo dira. **K**

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...

**HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA**

## Bigarren Eskuko azoka gaur, Urbieta kalean

Hamaika objektu eta material eskuratzeko aukera egongo da Bigarren Eskuko azokan, 10:00etatik 13:30etara bitartean.

netik aurreko azoketan egin duten moduan, higiene eta segurtasun neurriak beteko dituztela. Hori dela eta, maskarilla jartzea eta segurtasun distantzia mantentzea eskatu diete gerturatuko diren guztiei.

**HERNANI AZOKA**

Bigarren Eskuko azoka gaur egitea erabaki dute arduradunek. Koronabirusagatik joan den hilabetean ez zen ohiko egutegia jarraitu. Horregatik, «kompentsatzeko», gaur egingo dute azoka. Mota askotako produktu, material eta objektuak eskuratzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

«Eguraldi ona egingo du» eta beraz, Urbieta kalean izango da. Adierazi dute, pandemia hasi ze-

**Abuztuan egun bakarra**

Gaurkoa kenduta, abuztuan ez da Bigarren Eskuko azoka gehiago antolatuko. Hurrengoak iraillean izango dira, «ziurrenik bigarren edo hirugarren astean». Baina diote, «zehazteko dago oraindik». Izan ere, pandemia egoerak galarazi egin du horrelako ekintza eta ekitaldientzat behin-betiko eguna zehaztea. Hala ere, daten inguruan, herri-tarrak jakinaren gainean izango dituztela esan dute. **K**

## Lehendakaritza osatzeko prozesua, abian

**HERNANI ERRUGBIA**

Lehendakaritza osatzeko hauteskunde prozesua hasi du gaur Errugbi Elkarteak. Batzar Orokorrerako deialdia egin dute, abuztuaren 28an, Hauteskunde Batzordea izendatzeko eta egutegia aurkezteko. Hautagaiak aurkezteko epea irailaren 19an hasiko da eta 29a izango da azken eguna.

## Udakolore balkoi lehiaketa ospatu dute

**GOIZUETA BALKOI LEHIAKETA**

Balkoi lehiaketako 3garren edizioa ospatuko da gaur. Irabazlearen izena [www.goizueta.eus](http://www.goizueta.eus) webgunean argitaratuko dute gaur bertan eta txapeldunak herriko komertzioetan erosteko 150 euroko saria jasoko du. Bonaia gastatzeko 3 hilabeteko epea izango du.

## Maria Berasarte gaur, Atsegindegian

**HERNANI MUSIKA**

Maria Berasarte abeslari donostiarrak *Lurra eta Bidea* proiektua aurkeztuko du gaur, 20:00etatik aurrera, Atsegindegian.

**IRAGARKI MERKEAK**

**Zerbitzaria behar da Txintxua tabernan astelehenetik larunbatea eguneko menuetarako.**

Deitu: 686 597 893 - 943 55 21 99

**58 urteko emakume bat eskaintzen da gauetan gaixoak zaintzeko,** bai beraien etxetan baita ospitalean ere. Eskarmentuarekin. Deitu.: 644 269 848

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)